



Euskal Haziak elkarteak urtero idazketa txapelketa antolatzen du. Aurten 69 testu errezibitu dira, 200 ikasle inguruk parte harturik. Ondoko asteetan, testu irabazleak Herrian agertuko dira.

Lili eta munduko itzulia

Lilik bederatzi urte ditu eta aita-rekin Euskal Herrian bizi da. Amak abandonatu zuen urte bat zuelarik. Lilik izigarri maite du marraztea. Bakarrik delarik, buruan duen guzia margotzen du. Egun batez, aitak proposatzen dio munduko itzulia itsasontziz egitea. Alabak baietz erantzuten dio eta biziki kontent da. Lehenik Europara joan dira, ondotik Australiara, Antartikara, Afrikara eta Amerikara. Herri bakoitzean bi aste pasa dituzte eta museoak bisitatu, parkeak ikusi, mendiak igo, altxorrak

bilatu eta horrelako beste gauza anitz egin dituzte. Gainera, ez du etxeko lanik egin, eskolako zakua etxean ahanzi duelako! Kanadara heltzen direnean, Lilik ama aurkitzen du hotelean. Errexki ezagutzen du amaren argazkia gauero begiratzen duelako. Amak ere alaba xerkatzen du aspalditik, damutu zaiolako. Ondotik, Lili, ama eta aitak elkarrekin bukatzen dute mun-

duko itzulia. Momentu goxoenak Kuban iragaten dituzte, batez ere bananak biltzen eta papagaiak ikusten dituztelako. Bidaia eta gero, Euskal Herrira itzultzen dira denak, eta laster ahizpa bat sortzen da. Alaia deitzen dute.

Nahia Castorene
Largente eskola, Baiona
3. zikloko bigarrenak-bakarka



Euskal Haziak elkarteak urtero idazketa txapelketa antolatzen du. Aurten 69 testu errezibitu dira, 200 ikasle inguruk parte harturik. Ondoko asteetan, testu irabazleak Herrian agertuko dira.



Amets gaiztoa

Neska tipi bat bazen, Alba izenekoa. Bederatzi urte zituen. Arrats batean, film bat ikusten ari zen. Filma beldurgarria zen. Orduan, bere amak ohartarazi zion: — Joan ohera! Amets gaiztoak egingo dituzu! — Ados... esan zuen Albak, eta ohera joan zen. Berehala lokartu zen. Amets batean, hondartza batean agertu zen. Urrunean itsasontzi bat ikusi zuen, baina ez zegoen oso ongi. Tipia zen. Barku bat ere ikusi zuen, baina irudia desagertu zen bat-batean. Gero, ebe tipi bat agertu zen, eta barrura sartzeko gogoa ukan zuen. Atearen gainean «PIRATAK» idatzita zegoen... Alba beldurtu egin zen. Une horretan, piratak ebetik atera ziren! Zorionez, neskak denbora ukan zuen zuhaitz baten atzean ezkutatzeko. Bero handia zuen, eta berriro barrura sartzea erabaki zuen. Han, eskeleto bat ikusi zuen. Beldurra sartu zitzaion. Eskeletoaren gainean gutun bat zegoen. Honela zioen: — Egun on, Alba! Badakit nor zaren. Zuk ez dakizu nor naizen ni... Beldurra eduki behar duzu! Zure burascak nirekin daude... AH AH AH! Etorri, etorri, berriro ikusi nahi badituzu! Alba izutu zen. Gutunaren amaieran honela zegoen sinatuta: "Piratak." Orduan, eskeletoa mugitzen hasi zen eta alde egin zuen. Alba dardarka esnatu zen eta esan zuen: — A... amets gaizto bat zen...

Alba Echeverria
eta Andoni Lavergne
San Frantses Xabier eskola,
Urruña 3. zikloko
bigarrenak- taldeka



Euskal Haziak elkarteak urtero idazketa txapelketa antolatzen du. Aurten 69 testu errezibitu dira, 200 ikasle inguruk parte harturik. Ondoko asteetan, testu irabazleak Herrian agertuko dira.

Saioa eta itsasoa

Saioa itsasontziaren aitzinean zegoen. Bere burasoak agurtzen zituen, baita bere amabix ere. Negarrez erori zen haren besoetara. Amabix goxotasunez esan zion: - Saioa, jautsiko zara? Zure txokolatea prest dut! Saioa izu apur batekin esnatu zen. - Etorzen naiz, amabix, etorzen naiz! Argazki bat hartu zuen. Bertan, bere burasoen besoetan ageri zen. Amak begi urdinak zituen,



eta Saioak ere bai. Ile luze eta leunak zituen, aitarenen antzekoak baina luzeagoak. Saioak 10 urte zituen, eta bere bizitzaren erdia burasorik gabe pasatua zuen. Jautsi zen eta amabix telebistaren aitzinean ikusi zuen.

- Begira, ene maitea, zure burasoen itsasontzia da! - esan zion amabix.

Telebistako aurkezleak honela zioen:

- Bi gorputz oraindik aurkitu gabe. Ikerketek jarraitzen dute...

Saioaren burasoen aurpegiak pantailan agertu ziren. Neska isilik atera zen, txokolatea mahai gainean utzita. Korrika joan zen hondartzara. Han, uharri tipiak ikusi zituen, lerro polit bat osatzen zutenak. Saioa lerroari segitzen hasi zitzaion, baina luzea zen eta nekatu zen:

- Ez dakit zenbat neurtzen duen lerro honek, baina beroki batekin eta janari pixka batekin hobeto egongo nintzateke... Gaur iristean, berriz joan zen hondartzara. Uharriak lurrean zirkin-dirka ari ziren. Lerroari segika, harpe baten aurrean gelditu zen. Barnera sartu eta itsasontzi biki bat aurkitu zuen. Itsasora

bultzatu zuen eta salto batez igo zen barrura. Ordu bat geroago, hondartzara desagertua zen bere begietatik. Une horretan, hiru forma ikusi zituen bere itsasontziaren inguruan. Buru bat azaldu zen ur azpitik, eta Saioak oihuka esan zuen:

- AAAAAAH! Nor zara zu?!

- Egun on, Saioa. Ni lamina bat naiz. Zein polita zaren! Zure burasoak bilatzen dituzu? Nik badakit non dauden.

- Ados... baina nire amabix esan dit ez zaretela txinboak...

- Ez, zozokeriak dira horiek...

- Oso interesgarria da, baina joan behar dut. Adio!

Bi ordu geroago, Saioa kasik lokartua zegoen, baina bat-batean...

"IHIIIIHHIIII!": izurde bat agertu zen.

- Egun on, izurdea! Nahi duzu arrain bat?

- IHIIII!

- Badakizu non dauden nire burasoak?

- IHIIII!

Orduan, isla batean, bere burasoak ikusi zituen. Oihuka hasi zen:

- Aita! Ama! Hemen nago! Hemen nago!

Saioak salto egin zuen itsasora eta korrika joan zen. Bere burasoei besoetan hartu zuten.

- Nire maitea! Zenbat hazi zaren, zenbat handitu zaren!

Saioak arrain bat eman zion izurdeari.

- IHIIII!

Hiruak ebatera itzuli ziren pozik...

- NEREA, ESTEBAN! Non egon zarete? Erran zuen amabix.

- Historia luze-luzea da...

- Ados... baina, non da Saioa?

- Saioa logelan dago - esan zuen aitak.

- Gau on, Saioa.

Noa Ruggeri, Zoe Delmas, Lola Chapuis eta Zoe Palermo

San Frantses Xabier eskola, Urruña

3. zikloko irabazleak - taldeka



Euskal Haziak elkarteak urtero idazketa txapelketa antolatzen du. Aurten 69 testu errezibitu dira, 200 ikasle inguruk parte harturik. Ondoko asteetan, testu irabazleak Herrian agertuko dira.

Ganbararen sekretua

Egun on! Ni Maika deitzen naiz. Nire aitarekin itsasontzi batean bizi ginen zeren eta nere aitak itsas komertzioa egiten baitzuen. Baina egun batez...

"Maika! Zato oto! - dio aitak.

- Zer da? - galdegin nion aribatu eta.

- Nire lana galdu dut. Barkaidazu, maitea!"

Gero han bizi nintzen, Ainhoako bazterrean. Eskola etxean egiten nuen itsasontzian bezala. Nire ganbarako oihalek itsasontzi bat irudikatzen zuten nire lehengo bizia ez ahanzteko. Egun horretatik goiti urteak pasatu ziren. Gaur egun lau-ogoi urte ditut eta haur tipiak ere baditut. Egun batez, haiek nire ganbarara igan ziren. Ni bezala ziren, abenturak bizi nahi zituzten, leku berri batzuk deskubritu. Beraz nun nintzan? A bai! Nire ganbarara igan ziren ni sukaldatzen ari nintzalarik. Harrabots bat entzun nuen: «Nire sekretua atxeman dutel!». Ezti ez zeki igan nintzan azantzik gabe. Gela zangoz gora ikusi nuen. Lorea atzeman nuen



atearen aitzinean iria ezpainetan. Erran zuen: «Amabix, zure ganbararen? Ez nakien itsasoa maite zintuela zuk ere». Haurrak nire ganbaratik kanporatu nituen eta apairua xerbitatu nien. Jan orduko, Xabi eta Katixa lo egitera eraman nituen eta Lorearekin erabaki nuen mintzatzea.

«Lorea? - erran nion. Itsasoa maite duzu?

- Bai izigami, hainbeste nahi nuke itsasontziz bi-daia bat egin!» -erantzun

zautan.

Nire istorioa kondatu nakon.

«Zer xantza! -erran zuen begiak dirdiraz beterik.

- Lorea, sekretu bat badut. Ikusten duzu musika tresna hau?

- Bai, eta? -galdetu zuen presaturik.

- Magikoa da, idekiko dudalarik,

musika aterako da eta itsasora joan gira».

Lorea zuhurtziaz makinara hurbildu zen eta bat-batean, Loreak eta biak tunela baterat sartu ginen eta nire tipiko itsasontzira arribatu ginen.

«Itsasora gira! Sobera untsa da! Nola egin duzu?

- Hori sekretu bat da!» -erran nuen bere irudimena kurriarazteko.

Etberat sartu ginen eta urteak pasa, galdetu nion Loreari joateko itsasora makinarik gabe.

«Ez da posible! -erran zuen.

- Hori erran zintuen joan den aldiaren eta lortu zintuen.»

Beraz, entseatu zen itsasoari pentsatzea eta... lortu zuen! Horrela geroztik belaunaldiz belaunaldi, magia hau sortzen da niri esker.

Leira Alfaro Donostei, kolegioa, Baigorri. 4. zikloko irabazleak - bakarka